GETXO'KO EUSKELTZALEAK

Aurten, 1934'gn urteko Iraila'ren 15 ta 16'gnan, Algorta'n izango diran EUSKEL-YAYETARAKO eratu da uřengo

SARIKETEA

1º Getxo'ko toki-izen euskerazkoak. Sariak: 1º 75 lauřleko; 2'gn 25.

2'gn Bertoko euskeraz esaten diran esakun, kanta ta ipuñak. Sariak: 1º 100 lauřleko; 2'gn 50.

3'gn Getxo ta bere antzean dagozan Euzkadi'ko eřiak bařiro euskeldunduteko zer egin beař daiteken. Sariak 1º 100 lauřleko; 2'gn 50.

4'gn Euskera-Eřdera ta Eřdera-Euskerazko iztegiñoa. 12,000 itz euki beař dauz gitxienez ta ořalako liburutxuak euki daroezan izketeak-eta.
Saria 500 lauřleko.

5'gn Euskerazko itz-adierazkidien liburutxua. Saria: 250 lauřleko

6'gn Gizařte- arloa, umien aziera edo eleiz- gizařteko ta eřiketa arloan, emakumeak egin dagikenatzazko idaz-gaya. Edozein euskelgiz. Saria 250 lauřleko.

7'gn Josu Kisto Gure Jaunaren bizitza. Bařia, edozein euskelgiz, 150 ořialde euki beař dauz gitxienez. Saria 250 lauřleko

8'gn Gerkař-Latařen edozein edeř-lan ereduren euskeratzea edo Europa'ko antzeřkigile ospetsuen batena. Saria 250 lauřleko

Euskerazko lanak argi idatzi beař izango dira, eřiaren izkera ta geure idazlari ereduena gogoan eukita.

Lanok, Iraila'ren 1'goa baño len bidaldu, oitutako eraz.

Zuzenbidea: GETXO'KO EUSKELTZALEAK Avenida de Basagoiti 71 ALGORTA

Bazkun eratzalea egingo da lan-sartuen jabe, ta berak argitaratuko dauz.

Algorta'n 1934'gnko Ořila'ren 26'gnan